

BBK txartelak



BBK txartelek opariak gordetzen dituzte

Ordaindu erosketak edozein BBK txartelekin eta, hilerro, itzelezko opariak irabazi ahal izango dituzu.

bbk =

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA
beartzen

Lege gordailua: BI-85-98
ISSN: 1577-9025

2002ko EKAINA
45. zkia. DOHAIN


Zurbarango Jaiak

Bilboko Slot Kluba

Sorgintxulo, etorkizunaren alde borrokan

Amagoia Bilbao

“Jendea gero eta gutxiago aritzen da sukaldean”




Olabarri jauregia (1894)

Bilbok beretzat hartu eban Begoñako ibarra 1870 urtean. Orduantxe hasi ziran Campo Volantin pasealekuan txalet eta jauregiak eraikitzen.

Bilboko burges aberatsenek euren etxe dotoreak egin ebezan Ibaizabalen altzoan bertan. Etxe haietako bat Olabarri familiarena izan zan, Salbe ondoan altxatuta. Errazkinen argazki hontan obrak ikusten dira. 1890 eta 1894 urte bitartean egin eben jauregi hori. Gaur egun berau da Campo Volantinen zutunik dirauen bakarra.

Argazkia 'Bilbao 1860-1895 Pedro Telesforo de Errazquin' liburutik hartu dogu. Euskal Museoak emon eban argitara.



- ▶ Iritzia4
- ▶ Bilboko Slot Kluba5
- ▶ Begoña eta Euskerea8
- ▶ Sorgintxulo10
- ▶ Zurbarango Jaiak12
- ▶ Elkarrizketa: Amagoia Bilbao15
- ▶ Inkesta19


- ▶ Mahatsberriak20
- ▶ Hezkuntza24
- ▶ Mendi Ibilbidea27
- ▶ Olatz Caminos28
- ▶ Horoskopoa/Agenda30
- ▶ Hileko Argazkia31

Aittitte bategaz egon nintzen lehengo egunien berbetan, bueno, berbetan bera egon zan, ze honeik ai-ttittek badakixue zelangoaz ixeten direzen, berbetan hasi ta entzuten ez daurielez bardin dotzie zer esaten dotzezun-eta, hareik gure ixeten daurie berba egin ta baten batek entzutie edo esaten daurien guztidxeri bai ta bai esatie edo planta egittie, kontue da berbetan hasi ta ez dauriela akabaten, ta ganera ez dakixu zeren ganien dabilen berbetan, seguruenik oin dala berrogei urtetik harako kontuek danak. Baie edadie edadie da, ta errespetue euki bier jakie ta egon, ta egon, ta egon, ta gixona pozik, ta gauze asko entendidu bere ez dotzezu eitten, ze ez dakixu zeren ganien dabilen berbetan ta ganera aginek erdidixek falta jakoz, ta ademas hareri ez dotzo inporta ostiriperez zuk zer pentsaten dozun, harek parrapla parrapla...

Ta lantzien behin botaten dittuz egundo bere entzun ez dozuzen berba batzuk, iguel berak bere ez daki zer esan gure daurien. Ta akabaten dauenien, hau de, eskapateko atxakidxe ona topau dozunien, edo regatien egin dotzazunien pen-tsaten dozu harek zure konture barre bere egin dauela, ze edadie edadie da, ta edadiegaz ikisten dozu norinoiz-zelan ein bier jakon barre, ta pentsaten dot ha ondiñokarren ibiliko dala barrez neure konture. Posiakaso grabau ein neuen ta interneten ifiniko dotzuet harek kontau zostezeanak, zeuek juzgau dauen. Non ifini topaten badot, ze ez dakitt munduen ha kabitan dan serbidorerik badagoan. Isildu naitten hobeto ta zuek leidiue Bertonek kontaten dauriezenak, ze honeik ez dotzue barre eingo, egidxe ta zier-to, ze nik ezetututen dodaz ta....

GURE BAZTERRAK

**BEGOÑAKO RIKARDO BASTIDA PLAZAREN
ESANGURAREN INGURUAN**



Plaza hau, Basarrateko landa legez, Begoñako eleizateko Santutxu auzoan dago. Bera Begoñako Karmel-dik hur dago; gauza bitxia dan ezker, une honetan kontu bitxi bat emon nahi dot aditzera: izan bere, Rikardo Basti-

da arkitekto bilbotarra oso eleizkoia zan, eta beraren izena daukan leku hau eleiza batetik hur egotea haren omenez eginda dagoala esan geinke.

Bilbon jaio zan antzelari honen bizitzaren zertzeladak 1879. urtean dauke euren sorburua, urte horretan jaio zan-eta; hil, barriz, 1954. urtean hil jakun. 74 urte oparoak emon zituan Bilborentzat, eta bere lanbide jarduera, 50 urtean zehar, Bilboko Udalarentzat eskaini eban.


Urte horreetan zehar hainbat herri lan sustatu eban, ber-barako, Udal Alondegia, bigarren irakaskuntzako lizeo barria (geroagoan Migel Unamuno izenez ezagutuko zana), Indautxuko eskola, bai eta Ribera kaleko eskola bere. Beharbada, badago jakingarri berezi bat, une honetan, hau idazten nabilen unean, 2002ko maiatzaren 20an, garrantzi berezia hartzen dauana; egin-eginean bere, hil honen 24an inauguratuko dira (zuzetzat, irakurle, inauguratu dira) Artxandako tunelak, eta esan behar dogu, Rikardo Bastida bere tarteen ibili zala, eta proiektuetako baten partaide izan genduala.

Aurrekoez ganera, Banco Bilbaok eta Banco Urquijok Madrilen daukezan egoitzak berak eragitatokoak direla esan beharra dago.

Azkenik, aitatu gura neuke Rikardo Bastidak eleiz arkitekto legez egin eban lana: alde batetik, San Jose eta Artzain Onaren jauretxeak eragi ebazan, bai eta Zorrotzakoa eta Errekaldebarrikoa bere; Bilbotik aparte, espainiar estutuan eta mundu zabalean zehar bere baditu obra ederrak eginda.

GOTZON LOBERA REVILLA

UBIDEETAKO PASEALEKUA



Ubideetako pasealekua (Paseo de los caños, gaztelaniaz) Ibaizabalen eskuinaldean zegoen, ibaitik hur-hurrean, aldats batean gora. Miraflores etorbidearen paraleloan doa. Gaztelatik zetozenentzat Miraflores etorbidea Bilboko sarbidea zen.

Jatorriz, Bilboko ur hornidurari lotuta dago pasealekua. Hornidura hori 1523an hasi zen eta, erreformak eta hobekuntzak eginez, bere behin-betiko itxura hartu zuen 1785ean. Urte hartan Ignazio Albiz eta Juan Iturburu maisuek ur edangarrirako zein ez edangarrirako ubideak egin zituzten. Lehenengo bilbotarrek edan zezaten eta bigarrena garbiketarako eta erabilpen industrialetarako. Ubideen gainean harlauzak jarri zituzten, pertsonak handik ibiltzeko modukoak.

Bilboren berri eman duten liburu garrantzitsu guztiek pasealeku honen aipamena egin dute, esanaz toki ezin ederragoa zela hala bere zuhaitzengatik nola ibaiaren ondondotik egiten zuen errebueltagatik. Izan ere, Ubideen pasealekua, Areatza eta Campo Volantin Ibaizabalen eskuinaldean bata bestearen atzetik jarritako lorategi eta pasealeku lili-ragarri eta erromantikoak ziren. Gaur egun Ubideetako pasealekua zeharo galduta dago. Bilboko Udala hiri eremu historiko ahaztu hori suspertzeko proiektu bat hastekotan dago.

IÑAKI URIARTE

**Bizkaiko Foru
Aldundiko
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria**



**Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria**

ARGITARATZAILEA:
Batana Batu Kultur
Elkartea

ERREDAKZIOA:
Iturriaga 55, 1. ezk.
Bilbo - 48004
Tfnoa:
94 473 54 48
e-posta:
berton@euskalnet.net

ZUZENDARIA
Hektor Ortega
ERREDAKZIOA:
Arrate Diez,
Joana Etxebarria, Iruene
Berro, Iratxe Ruiz,
Erdoitza Martínez
Unai Cuevas

ARGAZKIAK:
Iñigo Azkona eta
Xabier Herrera

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
Iñaki Berastegi
Joseba Barrenetxea

KOLABORATZAILEAK:
Jaione Letamendia, Itxaso
Perez, Alberto Ugarte,
Iñaki Gaminde, Igor M.
de Vidales, Santutxuko
Bertso Eskola, Iñaki
Aurrekoetxea,
Joseba Zelaia,

Benito Fiz
**ADMINISTRAZIOA ETA PUBLI-
ZITATEA:**
Koldo Urrutikoetxea,
Zuriñe Martínez

LEGE GORDAILUA:
Bi-85-98

ALE KOPURUA:
1.200

berton

PILOTORIK HANDIENAK, ESKALA TXIKIAN

BILBOKO SLOT KLUBA BIZKAIAN AUTO MINIATUREKIN DABILEN BAKARRA DA



'Slot' zer den galdetuz gero, oso jende gutxik esango luke. Hala ere, gutako gehienok 'slot' eginda gaude. Ala ez duzue inoiz 'Scalextric'arekin jolastu? Ba hori besterik ez da ditxosozko 'slot' hori eta gurean dago Bizkaiko klub bakarra.

Eskala txikiko piloto handienak mahatsorriak ote?

*Testua: Itxaso Perez
Argazkiak: Itxaso Perez/BSK*



**IRUDIA SORTZEN DUGU
BILBO**

Santutxu kalea, 46
Tfnoa: 944 333 935
Santutxu kalea, 37
Tfnoa: 944 128 714
www.bilbaoweb.com/Spedro
E-Mail: iban.lopez@navigalia.com

**HORTZ KLINIKA
GERMÁN BERGARETXE**

GABRIELARESTI, 30 4. G
TXURDINAGA

94 412 82 74

CYBER TIME

**Ordenagailua gurea da
ideiak, zureak**

Sarean jolasak
Internet
Inprimaketa
Eskanerra
Datu grabaketak...

Aita Pernet, J
48004 Santutxu
Bilbo
Tfnoa/faxa: 94 459 74 06
E-mail: cyber-time.euskalnet.net
http://www.cyber-time.euskalnet.net

Maurice Ravel etorbidea auto zaleen bilgune bihurtu da azken urte honetan. Aurreko zenbakian Seat 600en Lagunen Elkarteari buruz hitz egin bagenuen, orain 'slot' dakargu. Zer da slot? Denontzat ezagunagoa den "Scalextric" marka komertzialaz esaten diogunaren izen "generikoa" da. Gurean Bilboko Slot Kluba dago.

Klub edo elkarte honen inguruan kotxe erreproduzio txikien zaleak biltzen dira. Berez, joko hau duela 40 bat urte iritsi zen Estatu espainiarrera, eta egun, estatu hau da lehenengo ekoizlea eta, honen ondorioz, zaletu kopurua handia da. Bilboko elkarte honetan Bizkaiko hainbat herritako bazkideak daude, Bizkaia osoan ez baitago mota honetako beste elkartarik. Gipuzkoan, aldiz, askotxo dago. 2001eko maiatzean sortu zuten elkar-tea, eta egoitza urri-raldera zabaldu zuten. Printzipioz, edonor joan daiteke bertara bere autoarekin ibiltzera, baina gertaera itsusi bat nozitu zuten eta oraingoz



neurtzen, noiz azeleratu pistako lekuaren eta baldintzen arabera. Izan ere, pistaren baldintzak alda daitezke-elako, benetako errepide batean gertatzen den bezalaxe. Horrela, "asfaltzkoa" izan daiteke, elurrez estalia (irinez egiten dute), edota lurrezkoa (kolakao). Barregura emango dio bati baino gehiagori, baina oso ikusgarriak dira, benetan. Baita mendiak, tunelak, eta abarreakoak. Askotan benetako zirkuituen erreproduzio zehatza dira. Gainera, badira kideek beraiek egindako oztopoak eta gune zailak. Beraz, ondo baino hobetu pentsatuta eta jorratuta daukate.



ez diote atea parez pare zabalduko jende orori. Bazkidea eginez gero, arazorik ez. Baina zertan dabilta hor, zehatz-mehatz? Erantzuna erraza da: entrenatzen. Ez baita erraza kotxe txiki horiek -Ferrari, Williams, McLaren, eta enparauak-menperatzea. Jakin behar da galga noiz sakatu, distantziak

Aipatu ditugunak rally motatako pista dira, baina abiadura lasterketak egiteko pista finkoa ere badaukate. Mota bietan helburu bakarra dago: ahalik eta denborarik onena egitea, eta horretarako lehen aipatu ditugun trebetasunaz gain, gauzarik garrantzitsuena pistatik ahalik eta gutxienetan ateratzea da.

ASTEBURURO LEHIAKETAK

Horrela, eta hasi zirenetik, ia astebururo lehiaketak egiten dituzte, bai auzoan daukaten egoitzan baita beste leku bazuetan ere. Villarcayon egon dira rally motatako lehiaketan. Mota honetan pista zati ezezagunetan hainbat itzuli eman behar dituzte, eta ezin dute alde zuzenetik entrenamendurik egin. Beraz, erabat ezezagunak dira ibilbideak. Behin denak amaituta, bigarren itzuli bat egingo da, baina oraingo irteera lehenengo itzulian egindako denboraren arabera ordenan izango da.



Rallyen beste ezaugarria multzo ezberdinak izatea da. Hau da, autoari egindako edota ez egindako aldaketen arabera dira. "N" multzoan erositako zegoen bezala egon behar du ibilgailu txikiak. "K", "A" eta "WRC" multzoetan aldaketak egin zaizkio autoari (motorrean, frenoetan,...).

Abiaduran, talde hauetan sailkatzen dira: "gazteak", "GT", "Formula 1", "Superturismoak" eta "Sport Prototipoak". Autook errealtatean txapelketa hauetan parte hartzen dutenen kopiarik ahalik eta zehatzenak izan behar dute, 1/32 eskalan eginak. Oso eskaintza zabala dago, errealtatean legez hemen ere urterik urte nobedadeak eta modelo berriak ateratzen dituztelako.

Baina rally eta abiadura lehiaketaz gain bada besterik. Le Manseko hogeita lau orduak famatuak badira, auto txikiekin ere erresistentzia probak egin, egiten dituzte, hamabi edo hogeita lau ordukoak hain zuzen. Horietan, hiru pertsonetako taldeek parte hartzen dute, eta ordu guzi horiek jarraian lasterketan ematen dituzte. Jakina, autoak behar duen zainketari arreta berezia jartzen diote: pneumatikoak aldatu, motorrean konponketak egin Ekipoak ondo prestatuta eta antolatuta egon behar du euren autoa karrera luze horietan helmugara hel dadin.

AURREKONTUAK

Oro har, joko honetan aritzea ez da oso garestia, kotxe batengatik 30 euro inguru eskatuko digutelako. Hori bai, elkarteko kide batek esaten duen lez, jokoa barik hobby bihurtzen denean aurrekontuak berehala egiten du gora nabarmen. Lehiaketetan parte hartzeko autoak 60 edota 90 eurotan saltzen dira. Ibilgailuari egiten zaizkion aldaketa guztiek araudiaren barruan egon behar dute, gero lehiaketetan esku hartu nahi izanez gero behintzat.

Elkartek txapelketa guztietan parte hartzen du, eta orain arte lortutako sailkapenik onena Espainiako Openean izan da. Bertan bosgarren postua erdietsi zuten.

Baina lehiaketaz gain bestelako ekintzetan ere parte hartzen dute. Adibidez, Errekalden noiz edo noiz egiten den Bilbo Gauan, pista bat jarrita daukate (Gaztelekun) eta horren antolaketaz arduratzen dira. Elkarte honen inguruan informazio gehiago ezagutu nahi baduzue horra hor helbidea, fisikoa eta birtuala ere:

BILBOKO SLOT KLUBA Mauricio Ravel, 1 - beheko
 Ibonja 48012 Bilbao.TLF. 655 70 19 56 (Jon)
 e-mail bsk@iespana.es
 Web <http://www.iespana.es/bsk>

EGUTEGIA

ABIADURA

irailak 7 16:00etan haurrak 13. eta 4. F1 (Euskadiko TX.)
Irailak 22 16:00etan 14. haurrak eta 4. Superturismoak
urriak 6 16:00etan 15. haurrak eta 4. GT
urriak 19 16:00etan 16. haurrak eta 4. Sport Prototipoak

azaroak 9 16:00etan 17. haurrak eta 5. F1
azaroak 24 16:00etan 18. haurrak eta 5. Superturismoak
abenduak 7 16:00etan 19. haurrak eta 5. GT
abenduak 22 16:00etan 20. haurrak eta 5. Sport Prototipoak

RALLY

irailak 28 16etan FINLANDIA (Lurra) (Euskadi ko Tx.)
urriak 26 16etan AUSTRALIA (Lurra)
azaroak 30 16etan RAC (Basa) (Euskadiko Tx.)


Txaskarrilloak Salaketak Enkestak
Otxarkoaga eta txurdinagan
WWW.PA-YA.ORG
 Berriak Herri mogimendua Euskal kultura
 Gure presoak Pa...yak baditu alternatibak

BEGOÑAKO EUSKERA INTERNETEN

Begoña eta Euskerea

BIZKAIFON, BIZKAIEREA ENTZUTEKO AUKEREA
EMOTEN DAUAN WEBGUNEA

<http://bizkaifon.ehu.es>



Aholab, euskaltzale eta ikertzaile taldea da. Bizkaiko Foru Aldundia eta Euskal Herriko Unibertsitatearen laguntzaz, bizkaieraren ganeko "Bizkaifon" izeneko fonoteka proiektua garatuten dabil. Bertan Bizkaiko larogei herritako herri literatura, (kantak, ipuinak..), berba isolatuak eta testu etnografikoak, entzun eta irakurri daitezke.

Orain arte entzun eta irakurteko, 18.000 artxibo dagoz sartuta. Aurrera begira, artxibo honeen kopurua handitu eta bideoklipak sartuteko asmoa dauka Aholabek. Larogei herri honeen artean, era xumean

bada be, Begoñako euskerea be sartuta bada go webgune honetan. Aurrerantzean beste hainbeste herriren antzera, zabalagoa izango da honen presentzia.

Horretarako lehengo grabazio zaharrak barriztu dauz, Iñaki Gaminde gure kolaboratzaile eta Aholabeko kide sutsuak. Oraingotan tresneria modernoagoa eta bideokamera be erabili dauz kalitate handiagoko soinua eta irudiak ziurtateko.

Hona hemen Iñaki Gamindek Arbolantxako Goikoetxe baserrian, Martin Mentxakatorre eta Karmelo Elorriagari egindako azkenengo grabaketaren zati batzuk.



Ume olgetetan, txori habiak topetan zenduezan?

Txori habiek asko, umeak koxi txorikumeek, errespeto eukiten zan amilotxari eta txindorreri. Horrek aitak- eta ez euskun ixten koiuten, horrek espezialak dire hurrean, amilotxak jaten dauelako arrak inurriek eta mamarroak, eta elaiiek bez.

Zeintzuk hartuten zenduezan?

Zozoak, txontak, jilgerue... be bai birigarroa. Zozoa eta birigarroa gitxi egoten zan, oin dau ghiago.

Txori batzuk galduko ziren ezta?

Bai asko galdu dire, pitzatzarra eta txirrikilie be... ez dabil, berderoie bez eta txontie "de pase" bere ez, bertako txontie apur bet, ostantzien ezebez.

Txirikile olgeta ezetu dozue?

Txirikile bai baie enaz akordetan

Makil bateri puntak zorrotzu eta gero aidean doala beste bategaz jo.

Guk pitzetan paleagaz olgetan gendun hori e?

Ezetu dozuez etxetatik gorpuk ataraten bakoitzak bere bidetik?

Karmelo. Nire amama lepoz eron euren hemetik Begoñera, baina bide normaletik.

Andabideak ezetu dozuez?

Gure aiten denporatan bai, gure denporan ez da ezetu hori, eta deko inportantzi handie.

Andariiek bai eta hatxakaz, ez da hainbeste urte.

Zelan joaten zan?

Hatxak joaten ziren kajien aurretik eta abadie hatxak eta kajien erdien eta andrak kandelakaz

Herrietan diferentzia egoten zan, enteru egunean konbideu iten euren etxe-koak jentieri, urrinekoak.

Zamudion eta Galdakoen be bai.

Mailukia ezetu dozue Begoñan?

Mallukia ez dogu ezetuko ba?

Zelako beharra emoten dau mailukiak?

Behar asko eta txarra. Atzamarrak be okertu egiten dire, mallukirako ona izen da hau. Hatxie.

Gabon inguruan plantetan zan, mallukiek berak emoten dau landarie zahar-rrak, aihenak eta landariek kendu egin behar jakoz sasoz. Mallukie hemen San



Iñaki Gaminde Karmelo Elorriaga eta Martin Mentxakatorregaz berbetan.

Jose egunetik aurrera ensegida etorten zan, malluki txikerra. Oin berrogei urte 100 pezeta kiloak balio euen San Isidrotako, eta eskuetatik kendu. Oin baino karuago egoan. Oingoak ez deko gusturik horrek. Orduen kanpoko ez zen etorten. Hemeko frutie dana salduten zen.

Nora eroten zan?


Erriberako plazara.

Mendeu zelan egiten zenduen?

Denporak dauz, agosto eta setiembre azaletik eta neguen astilletik

Eta zeozer iminten zeuntzen?

Bai haizientzat, kola, basie be bai, bekorotza eta bustiñe.



Santo Rosario, 1 (Santutxu)
Tlf.: 94 473 10 65



HARATEGIA - URDAITEGIA



Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

Sorgintxulo, etorkizunaren alde borrokan

"Santutxuko taupadak" kanpaina egiten duten bitartean Udalaren erabakiaren zain daude gazteak

Testua: **Iratxe Ruiz**

Argazkiak: **Iñigo Azkona / Sorgintxulo**

Santutxuko gaztetxearen jabe-tza eskuz aldatu da. Hasiera batean bizilagun dituzten karmeldarrena bazen egun Bilboko Udalarena da. Sorgintxulo gaztetxearen geroa arriskuan jarri zen Udalak bertan adinduentzako egoitza jartzeko asmoa azaldu zuenetik. Udalaren nahia aurrera ateratzeko hainbat traba agerian ziren: eskailerak igo beharko zituzten zaharrek, igogailu eta azpiegitura itzela antolatu behar beraz.

Gauzak honela, Sorgintxulokoek, Santutxuko familia elkartearekin bat, mozioa aurkeztu zuten Udaletxean. Mozioaren helburu nagusiak garbi zeuden, alde batetik lokala Sorgintxulorena eta Gaztedi dantza taldearena zela eta gaztetxeak hiru urtetan zehar gauza pilo aurrera atera duela, baita 50 urte daraman Gaztedi ere. Hortaz, bi taldeak bertatik kanporatzea ez litzateke bidezkoa izango.

AUZO-LANA ASPALDIDANIK

Gaztetxeko lagunek historia alde dute aspaldidanik auzoan herri mugimendu nabaria egon delako. Gogoratu behar dugu 1976an Santutxuko Familia Elkarteak gazteentzako egoitzak eskatzen hasia zela, baita Kultur Etxea. 1980an elkarte berak Karmeldarrei eta Udalarari ere elizaren ondoko gunea eskatu zuten auzoak hainbeste behar zuen Kultur Etxea eratzeko. 'Grua etxea'n eraikitzea pentsatu bazen ere 1988an bertan behera geratu ziren asmo guztiak.

Kultur gunea Txurdinagako polikiroldegian atonduko zutela aurreratu zuten baina emaitzak ez ziren heltzen. Garai hartan Santutxuko Gazte Asanbladak Mina del Morroko lokala okupatu zuen baina zortzi hilabete geroago (1996ko ekainean) bertatik kaleratu zituzten. Bi urte pasatu behar izan ziren 1998ko azkeneko egunetan Sorgintxulo sortu zen arte.

Sartu aurretik lokalak 18 urte zeramatzen hutsik eta horregatik gazteak ez dute bidezko ikusten bertatik aldegitia. Elka-



rrizketaren bidez Bilboko Udalarekin akordio batera heltzea dute helburutzat momentuan. Euskal Herri osoan hainbat gaztetxeen itxiera ematen ari den uanean Basauriko gaztetxearen egoera lortu guran dabilta. Udalaren jabegoa izanik Udalak berak konpondu zien lokala eta erraztasunak eman zizkien. Baina Bilboko gaztetxeen egoera bestelakoa da.

AUZOAREN BIHOTZA

Santutxuko taupadak lelopean auzoko gazteak borrokan dihardute. Arazoa "auzo guztia-rena" denez erantzuna auzo osoak eman behar diolakoan daude. Helburua lortu nahian asanblada irekiak antolatu dituzte, gaztetxeen biltokia duten 30 taldeak alde dituztela.

Egoera honen aurrean erakunde publikoen proposamen bakarra auzo-etxea da. Auzoko erdigunetik urrun egoteaz gain, araudi hertsia bat eskaintzen du eta, beraz, gehiengoak ez du onartzen. Alde ez agertzeko arrazoiaren artean instalazioak erabiltzeko identifikatu beharra, kameren kontrolaren menpe jardun beharra, ordutegi murrizta, asteburuaren itxita egotea eta burokrasia gehiagi egotea aipatzen dute. Azken arrazoi honekin batera talde edo erakunde batek zentroa erabiltzeko lehendabizi legezaturik egon behar dela esan behar.

Laburbilduz esan genezake auzoak ez duela udal auzo-etxea bere sentitzen; zentroa ez dela auzokideen bilgune eta eskura dagoen aisiadirako leku.

Sorgintxuloko gazteek eta taldeek alternatiba proposatzen dute. "Gure herri ekimenetik auzoan hutsik dagoen lokal bat erabiltzea proposatzen dugu. Lokal guzti horien artean Karmeloko elizpean kokatuta dagoen zinema aukeratzen dugu. Lokala itxia eta hormatua izan aurretik auzoko jende ororentzat biltokia zen. Bestalde, egokiena iruditu zaigu dituen dimentsioengatik. Bertan, erabili izan zuten pertsonen esanen arabera, zinema bat, taberna bat, biltokia, garai bateko haurtzaindegia, frontoi ohia eta zenbait gela daude eskailera bitar-

tez loturik dauden bi solairuetan banaturik. Gainera garrantzitsua da bertan burutu ziren ekintza eta mugitu ziren taldeak ere gogora ekartzea: aisiadirako taldeak batzen ziren, haurtzaindegiak zuten egoi-tza, abesbatza taldea zegoen, pala eta futbito txapelketak egiten ziren, euskara eskolak bertan ematen ziren, mendi taldea zegoen eta egun ere aurrera darraien Gaztedi dantza taldeak zuten egoitza".

Gazteek nabarmentzen dutenez, "bazeuden ere bertan talde eta erakunde politiko eta sozial asko, 'Juventudes de Carmelo y Praga' besteak beste. Azpimarratzekoa da aurrera atera ziren ekimen asko, baita auzoko gazte guztien jostaketarako izango zen Gorbeia aterpetxearen eraikitzea ere. Guk ere gure ekimen guztia egiteko ilusioa izan nahi dugu, askatasun osoz eta autogestionatuz, orduko pertsona haiek egin ahal izan zuten moduan; toki bat izan non gazteak, inongo kontrol burokratikorik gabe, beraien nahia adierazi ahal izango duten. Hau guztia kontuan harturik eta lokala modu formalean eskatu genuenean jasotako erantzuna ikusita (sarre-rra ororen itxia) lokala okupatzea erabaki genuen, gure eskubide gisa ikusten baitugu. Horregatik proiektu baten bitartez auzo hau osatzen dugun guztion laguntza eskatzen dugu guztion desio eta beharretatik sortu den ekimen bat aurrera eramanez ahal izateko: Gizarte zentroa".

GAZTETXEA KULTURAZ BLAI

Sorgintxulon burutzen diren ekintza kulturalak mota askotakoak dira: antzerkia, musika, zinema, pintura, irrati libreak, euskarazko klaseak, liburutegia, ikasteko gelak, tailerrak, eztabaidarako eta batzartzeko gunea bat egiten baitute Mahatserriko gaztetxe honetan.

Pasa den ekainaren 20an auzoko gazte orori zuzendutako asanblada irekia egin zen. Gaztetxearen geroa zein ote den hausnartzeko prest bildu ziren eta Sorgintxuloren jarrai pausok zehaztu ziren bertan.

Alde batetik, autogestioan oinarritutako proiektua aldarrikatu zuten. Kutsu kulturalako eta sozialeko arazoak eztabaidatzeko gunea legez identifikatu zuten lokala. Hirugarrenez, indibidualismoa, sexismoa, arrazakeria, globalizazioa, militarizazioa, espekulazioa, klase desberdintasuna, kontsumismoa eta etsipena moduko baloreei aurre egingo dio gaztetxeak. Bestetik, erabakiak batzarraren bitartez hartuko dira. "Auzolanean eraikia den neurrian santutxutarrok dinamizatuko




dugu. Eta azkenik, Euskal Herrian bizi garen heinean gure izaera landuko dugu", diote gazteek.

Sorgintxuloren hiru urteetan zehar erabili duten talde, organismo, fanfarre, musika-talde, auzokide eta gainerako gizarte eragileen iritzia biltzen duen txostena plazaratu berri dute. Iritzia baino, lokala zertan erabili duten memoria, Sorgintxuloren kutsu gizartekoia erakusten duen txostena da. Izan ere, 30 talde baino gehiagok erabili dituzte instalazioak, agerian utziz okupatu zeneko helburuei eusten diola, hain zuzen, Santutxu bezalako auzo baten alternatiba kultural eta soziala eraikitzea.

Hau guztia auzotarrok auzolanean eraikia izan da, gazte eta nagusiak aberasten duen esperientzia. Gaur egun bizi dugun gizarte indibidualismo eta globalizazio prozesuaren aurrean gure izaera gorde eta lantzen duen egitasmoa baita. Ezin baitaiteke ahaztu, bertatik igarotako taldeaz gain hiru urteetan 500 pertsona baino gehiago ibili dela lanean bertan. Santutxu moduko auzo populatua, gaztetxeak harreman sendoak sortu dituela esan genezake ondorioz.

TALDEAK: Santutxuko bertso eskola, Asapala kultur elkarte, Bolueta eta Santutxuko talde antimilitarista (Bostan), AEK, Askagintza, Gurasoak, Sociedad Cooperativa Unión Begoñesa Basarrate, Askapena, Txahal Aparta kultur elkarte, Kaixo, Dunbots taldea, Likiniano kultur elkarte, Iduna, Kaixo gazteak konpartsa, Kaskagorri konpartsa, Santutxuko Amnistiaren Aldeko Mugimendua, Santutxuko Euskal Herrian Euskaraz, Santutxuko jai batzordea, Edipo, Irritados eta Ximaure musika taldeak, Santutxuko gazteon kultur elkarte,...



ASAPALA

KULTUR ELKARTEA

Bertoko euskaltzaleon topagunea eta elkarte egin guran gabilta

Zeuk ere euskararen ardura badaukazu, batu gurera!

Hemen gagoz:
Iturriaga 55, 1. Ezkerra
Tfnoa. : 944735448
E-posta: asapala@eusnet.org

Garraioak



Deitu:
Jabi: 607 43 17 91
Txema: 607 19 68 33



Sugea taberna

Iturriaga, 92 Santutxu

BASTERTXU



TABERNA

Ricardo Bastida plaza

E R T O N D U G U U

E R T O N D U G U U

Zurbarango jaiek Mahatserriko denboraldia zabaldu dute

Hirugarren urtez segidan festak egin dituzte oztopo guztien gainetik

Testua: Itxaso Perez
Argazkiak: Berton

Udaberriarekin lehenengo jaiak heldu ohi dira bazter mahatsorriotara. Aurten Zurbaranen eman dute txupinazoa, Otxarkoaga atzetik etorri dela. Begoñabarran (Castaños) ez dira egin eta azken ikutuak ematen ari dira Santutxuko jaien prestakuntzan. Bilboko Udalak auzoko jaiekin aurten hartutako jokaerak ere ez du batere lagundu...

Zurbarango jaiak 2002, hirugarrenak honez gero. Ekainaren lehenengo asteburuan egin dira aurten, inguruko auzoetan jairik ez zela. Aurrekoek Donibane egunarekin bat egin zuten, eta aurrekoen aurrekoek, aldiz, Korpusarekin batera. Jai Batzordean eztabaida izan da datekin: Elizako batzuek Korpusen egin nahi omen dute, eta Jai Batzordeko beste kide batzuek data finkatzea hobe dela irizten dute, beste jaiekin bat ez egiteko eta horrez gain, auzoko jendeak data zehatz batekin lotu dezan.

BERTONEK eurekin elkarrizketa egin orduko ez zeukaten balantzea eginda, baina gainera begirata alde onak eta ez hain onak aipatu dizkigute, bietakoa egon baitira aurten Zurbarango jaietan. Parte hartzearen aldetik pozik agertzen dira, eta uste dute jende asko ibili dela, inguru horretako jai bakarrak izan direlako, besteak beste. Umeak izan dira, nagusiki, esku hartu dutenak. Ondorioz, datorren urteetarako haurrentzako gauza gehiago prestatu beharko dutela ikusi dute.

Aurten prestatutako txapelketa guztiak egin dira (pasa den urtean poteo lehiaketa ez zen gauzatu jenderik ez zegoelako). Poteo rallyren ordez txiste lehiaketa burutu dute, eta berez txapelkun zena atera zen irabazle, txapela jantzita baitzeukan alde aurretik, beharbada susmoren baten jabe zelako-edo.

Aurten prestatutako txapelketa guztiak egin dira



Giro aldetik, gauaz egunez baino giro handiago egon dela diote. Izan diren bi berbenetan dan-tzaldia egin da, ez kontzerturik. Lekukoek diote, ez dute egundo ikusi horrenbeste jende "pakito txokolatero" batera dantzan. Iaz jende asko egon bazen, aurten izugarria izan ei da. Eta musikari dagokionez, betiko arazo txikiak auzokideekin, musika altuegi dagoela gaueko ordu txikietan, baina berehala konponzen dira.

Gero, istripu txikiren bat kotxe batekin, konpontzeko bidean dagoena. Auzokideen laguntza eskasa izan dela diote Jai Batzordekoek, jai eremua errespetatzeari dagokionean behinik behin. Izan ere, eremu horretan ez aparkatzeko eskatuz auto guztietan paperak ipini zituzten. Hala ere, pertsona batzuek (eta ez dira gutxi izan) kotxeak eremuaren barruan utzi dituzte asteburu osoan, bertan egin behar ziren ekitaldiak oztopatuz.


Ibilgailuak ez dira eragozpen bakarra izan. Marrazketa lehiaketa egiten zen lekua aurten hesiz inguraturata dago (pribatua zen, antza) eta lehiaketa Panerako etxaldeko plazan egin behar izan da. Baina dena ez da oker atera. Txotxongilo jaialdia ekitaldi berrietako bat izan da, baita programatik kanpo zegoen galtzontzilo lehiaketa ere. Adi egon, doping kontrola eskatuko baita laster batean.

Dopingik ez zuten behar izan herri kiroletan aritu



zirenek. Iragan urtean egon zirenez gain aurten aizkolariek ere jardun dute, baita jai alaitzen ankapaluek ere. Jatekoei dagokionez, tortilla txapelketa arrakastatsu irten zen, eta ez horrenbeste bazkari herrikoia. Eguraldia lagun hasi zen baina etsai bihurtu zen bigarren platerarekin hasi orduko. Postrea aterpean hartu behar izan zuten.

Hala ere, eta esan bezala pozik daude antolatzaileek, gauzak hobetu daitezkeen arren. Eskerrak emateko atalean Zurbaranbarriko konpartsari igela uzteagatik, garbi-tzaileei (ez ziren Udalekoak, ez), eta aipatu barik ezin delako utzi, hala eskatuta, Zupori, Jai Batzordeko txosna eder bat egin duelako. Hurrengo urtean gehiago eta hobeto agindu digute. Hala bedi!



GOJIAN S.C.L.

LAN BERTIKALAK

Pintura lanak etxaurre eta patioetan
Ke-irteerak eta Ur-hodiak
Eraikinetako edozein konponketa

ANDAMIO BARIK

TELEFONOAK:

630 08 09 38

659 45 16 22

**MESÓN
URETXE**

Santutxuko poteo gunean


Bikoitz
ARROPAK ★
ZILARRA ★
OPARIK ★
Part. Arsuaga SANTUTXU
Tel. & Fax: 473 42 88 • 48004 BILBO
bikoitz@euskalnet.net / www.euskalnet.net/bikoitz

Santutxu bederatzi egunez egongo da jaietan

Uztailaren 13an hasi eta hilaren 21 arte luzatuko dira Santutxuko aurten- go jaiak. Bederatzi egun, beraz. Beti bezala, pentsatuko du inork. Bai, baina txiripaz. Egia esanda, lerro hauek idatzi orduko horixe da Bilbo- ko Udalaren jarre- ra baina baliteke hori ere aldatzea. Beste auzo batzue- tan egin izan du eta.

Kontua da aurten Bilboko Udalak oso jarrera bortitza hartu duela auzoe- tako jaien kontra. Lagundu, inoiz ez ditu benetan lagundu, baina aurten kontra jo du nabarmen. Udal arduradunak tema- tu dira auzoetako jaiak asteburu bakar batean egin



daitezten. Horrela, Deustuko jaiak erditik ebaki zituzten. Beste toki batzuetan min are handiagoa egin dute, lehenengo baietza eman eta azken orduan ezetz esan. Horixe izan da, esate baterako, Ibarreko- landako kasua. Santutxuko Jai Batzordeak maiatzaren 28an hartu



zuen asteburu bakar baterako bai- menaren notifikazio idatzia. Hala ere, handik gutxira ber- baz udal arduradu- nek bigarren aste- burua onartu dute, ordu egitean murriztapenak ezarri nahi badituzte ere. Beraz, Jai Batzordeak egita- raua prestatu behar izan du jakin barik egerik edukiko ote duen. Hala ere, egi- taraua prest dago eta santutxutar guz- tiei jai ederrak pasa- tzeke aukera eman- go zaie.

Nobedadeen arte- an, lau egunez Kar- melo plazan egingo den irristatzeko ikastaroa aipa daite- ke. Edota lehenen- go zapatuan egingo den 'Kitto poteo berezia'. Gazteek taberna bakoitzean,

edateaz gain, saio berezi bat egingo dute, hala ber- tsoak nola bideoa edo antzerkia. Perretxiko dastatzea ere egingo da Basarrate plazan asteazkenean eta ez dira faltako betiko kontzertuak, bertsolariak, antzer- kia, jokoak, kirolak, musika eta gainerako jai ospaki- zunak.



Kupoi hau Santutxuko AEKn (Arbidea 21) aurkezten due- nari **BI EUROKO DESKONTUA** egingo zaio 'Euskara Mendian' liburuaren erosterakoan. **BERAZ, 5 EUROTAN SALDUKO ZAIO.**

e
l
k
a
r
r
i
z
k
e
t
a

Amagoia Bilbao

"Jendea gero eta gutxiago aritzen da sukaldean"



Amagoia Bilbao mahatsorriak Gipuzkoan eman ditu azken urte hauek. Oreretako haur- tzaindegiko sukaldaria da lan- bidez, baina askoz ere eza- gunago egin da Euskal Herri- osoan 'Gara' egunkarian egu- nero argitaratzen dituen errezetei esker. Urte bi eta erdi darama zeregin orretan arrakasta eta oihartzun han- diz. Santu-txura sarritan etor- tzen den arren, Andoainera joan gara berarekin egoteko eta bere errezeten iturria zein den jakiteko asmoz.

Testua: *Hektor Ortega*
Argazkiak: *Iñigo Azkona*

D
A
K
A
R
K
A
I

E
R
B
E
T
A
N

Txikitako zure ametsa sukaldaria izatea zen?

Ez. BUPen hirugarren kurtsua egiten nengoenean zer egingo nuen erabaki behar nuen. Ez nekien zer egin eta, zergatik ez dakidala, esan nuen sukaldari izan nahi dut'. Gogoratzen naiz amak ezetz esan zidala, lehenengo COU egiteko, gero selektibitatea eta ondoren karrera bat. Nik ez nuen nahi. Hala eta guztiz, badaezpadan, COU egin nuen baina ondoren 'sukaldaritzaz' aukeratu nuen. Holan izan zen. Ni ez naiz txikitatik sukaldeko lanarekin interesatuta izan.

Ez zara damutu, ezta?

Bai zera!

Orain haurtzaindegi batean egiten duzu lan sukaldari gisa...

Bai. Urte bi edo eman nituen jatetxeetan lanean. Gero oposaketak egin nituen eta geroztik hemen nago.

Eta 'Gara' egunkariko sukaldaritzaz txokoarena zelan sortu zen?

Haurtzaindegian nengoen lanean eta alde batetik 'txolito' bat da baina beste aldetik ez da batere 'kreatiboa'. Orduan 'Gara'koek esan zidatenean ezetz erantzun nien, 'palo' ematen zidan... Baina gero pentsatu nuen 'saizteagatik ez da ezer gertatzen'. Eta esan zidaten aurkezteko ea zelan egingo nukeen. Aukera batzuk aurkeztu nituen, baietza eman zidaten eta horrela hasi nintzen errezetak egiten. Pentsatu nuen 'bi hilabete izango dira', eta badaramat urte bi eta erdi eta oraindik ere badaukat zer esan asko.

'Gara' hasi eta handik gutxira hasiko zinen...

2000ko otsailan hasi nintzen, 'Gara'ren lehenengo urteurrenean. Urtebetea egiterakoan aldaketa batzuk egin zituzten eta horietako bat errezeten txokoa sortzea izan zen.

Zelan antolatzen duzu lana?

Orain askoz ere errazago hasieran baino. Normalean egiten dudana da astero hurrengo asteko errezetak prestatu. Zazpi egunetatik hiru arrain bat, okela bat eta poste bat dira. Gainerako lauak apur bat ezberdin egiten ditut: pizzak, barazkiak, ... Orden bat mantentzen ere saiatzen naiz, badagoelako jarraipena egiten duen irakurlerik.

Zailtasun mailak ere tartekatzen dituzu?

Bai. Baina errezeta guztietan agertzen da ze zailtasuna daukan. Hala ere, ez da erraza hori esatea. Batzuetan nik erraza irizten diodana beste askorentzat zaila izan daiteke.

Nondik ateratzen dituzu errezetak? Esan daiteke?

Nire burutik. Ja, ja. Bai, bai. Gehienak bai. Hala eta guztiz ere, liburu batzuk irakurtzen ditut baina batez ere ideia bat egiteko eta pixka bat aldatzeko. Normalean gehienak konbinazioak dira eta sukaldaria kontrolatzen baduzu azkenean bariazioak egitea baino ez da. Esate

baterako, 'gaur jarriko dut kalabazina bete. Ea zer gelditzen den ondo kalabazinekin'. Pentsatu apur bat eta hortik ateratzen da errezeta.

Eta errezetetan zure 'ikutu' pertsonala igartzen da? Zure gustuak edo joerak...

Ez. Denetarik dago. Errezeten artean badaude niri gustatzen ez zaizkidan gauza asko. Hala ere, ondo pentsatuta, seguru zer edo zer baietz, nahiz eta ni ez konturatu.

Buruhausterik ematen dizu eguneroko errezeta atera beharrak?

Batzutan bai. Baina orain askoz hobeto. Igual hasieran arduraren zama gehiago igartzen duzu baina orain erritmo hartuta nago eta askoz hobeto. Batzutan ideiak errez sortzen dira eta beste batzutan ez dago modurik. Horregatik beti ideiarekin bat daukadanean apuntatu egiten dut eta aurrerago erabiliko dut. Baina orokorrean ondo, pentsatu baino askoz ere hobeto...

Baserriko amamaren baten sekretuak ideia iturri gisa erabiltzen dituzu?

Nik ikasi dudana hortik dator. Hemengo sukaldaritzaz hortik dator. Indabak, saltsa guztiak, ... basea hortik dator nahiz eta zuk zeozer asmatu... bueno asmatu ez nuke esango, dena edo ia dena asmatuta baitago.

Zure errezetak edonork egin litzake?

Ez. Batzuek ez. Badaude pertsona batzuek ez daukaten ideiarik ere ez eta gainera ez dute disfrutatzen sukaldetan. Sukaldaritzaz gustatu behar zaizu, ze beste la...

Urte bi eta erdi hauetan zein izan da irakurleen erantzuna?

Niri heldu zaidanagatik, jendea pozik dago. Ondo dagoela esaten du. Eta horrela izango da, 'Gara'k mantendu duelako... Orain urtebete edo esan nien uzteko, beharbada denbora gehiegi zela errezetak ematen... eta esan zidaten ezetz, jubilatuta arte jarraitzeko... Beraz, funtzionatuko duela pentsatzen dut...

Jakin duzunagatik, zein izan da errezetarik arrakastatsuenak?

Denetarik egon da. Pertsona askok deitu dute egunkarira eskatzeko errezeta jakin bat. Hau edo bestea egin nahi dutela eta mesedez argitaratzeko horren errezeta... Bestalde, hasieran patata tortilla beteak egiteko errezeta argitaratu genuen. Jende askok esan zidan, 'ederto!', jende gehienak ez zekielako zelan egiten ziren, nahiz eta errazak izan. Baina norberaren gustuen arabera izan da.

Euskal Herrian ia denak gara sukaldaritzaz adituak. Hasterakoan horrek beldurtu zintuen?

Ez. Nik hasieran ez nuen nahi lotsatia naizelako eta argazki bat ipiniko zutela esan zidaten... Baina gehiagotan esan zidaten eta gainera neska bat nahi zuten, horrelakoetan gehienak gizonezkoak direlako... Eta horrela hasi nintzen eta orain pozik nago, aukera ematen didalako sukaldaritzaz murgilduta segitzeko.

Argazkirik ez dago zure errezetan baina karrikatura bai.**Eta horrek Emakunderen deia ere eragin zuen...**


Bai, hala da. Emakundetik deitu zuten galdetzeko ea zergatik agertzen zen beti emakume bat marrazkian sukaldeko lanak egiten. Ez zekiten marrazki horiek nire karrikaturak direla.

Emakume gehiago hasiko zaigu famatzen sukaldari gisa?

Ia ba. Oraindik gutxi daude. Arzakaren alaba, Argiñanoren arreba, ... badaude neska eta emakume asko jatetxeetan baina... Ez dakit zergatik ez diren gehiago ateratzen...

Benetan euskal sukaldaritzaz maila altua dauka alaitoa da?

Altua da, bai. Baina orain gero eta jende gutxiagok egiten du. Ez dakit zergatik, jendeari gustatzen ez zaiolako, lanagatik, bizimoduagatik, ... gero eta jende gutxiagok egiten du...



Euskal sukaldaritza maila altua da, baina orain gero eta jende gutxiagok egiten du. Ez dakit zergatik, jendeari gustatzen ez zaiolako, lanagatik, bizimoduagatik,... gero eta jende gutxiagok egiten du...

Ondo bai,... baina osasuntsu jaten dugu?
Ez, nire ustez ez.

Globalizazio eta etorkinen aroan, beste kulturako produktuak eta jatekoak erabiltzen dituzu?

Bai. Baina asko ez, bestela jendeak ezin ditu aurkitu. Eta beste batzuetan produktuak barik egiteko erak ekartzen ditut.

Euskal Herrian barrena gustuak toki batetik bestera aldatu egiten dira?

Nire iritziz, ez. Barrualdean arraina jan eta baloratu egiten da eta berdin okela kostaldean.

Dietek eta bizimodu azkar eta zoro honek agian...

Bai, hori da. Eta egia da sukaldean aritzeko denbora behar duzula. Baina hala ere maila altua dago. Ez dakit zergatik den, soziedadek eta txokoak daudelako... Edozein jantzetan ere maila altua daukazu. Iparraldera joatea baino ez dago ikusteko horko maila Hegoaldekoa baino apalagoa dela. Hemen eguneko menua jaten baduzu jantze gehienetan maila altua dago. Ez da beharrezkoa 'goi maila'ko jantze batera joatea. Eta etxeetan berdin. Igual ere produktuen kalitatea ona delako.

Mahatsorrientzat ze errezeta aukeratuko zenuke?

Eperrak mahats saltsarekin eta postrerako mahatsez egindako tarta bat. Saltsari txakolin apur bat botatzea ahaztu barik ja, ja.

Noiz arte iraungo du Amagoiaren errezetategiak?

Urte bi gehiagoko epea jarri dut. Baina, auskalo. Igual urte bi barru animatuta egongo naiz jarraitzeko... Oraindik badaukat zer kontatua.

ZORTZI GALDERA LABUR

Film bat: 'Tomates verdes fritos'.

Liburu bat: 'Los pilares de la tierra'.

Izen bat: Igual lagunduko didazu ze haurdun nago eta oraindik ez dugu izena aukeratu, ja, ja.

Kanta bat: Ruper Ordorikaren 'Beran-

du dabilta'.

Toki bat: Urdaibai

Janari bat: Edozein entsalada epela.


Kirol bat: Igeriketa

Amets bat: Askatasuna



IRATI (TXURDINAGA)

BATEN BAT HOLAN IGOAL BAI BAINA EZ DOT SINISTEN. NORMALEAN PASO EGITEN DOT. ZEOZER EGITEARREN.



ANARTZ (SANTUTXU)

EZ. NORMALEAN EZ. EZ DIET INONGO KASURIK EGITEN. EZ DIRA SINESGARRIAK.




JANIRE (BASURTU)

BATZUTAN. GURASOEK EGUNKARIA EKARTZEN DABENEAN IRAKURTZEN DODAZ. BAINA EZ DOT SINISTEN HORRETAZ. KURIOSITATEAZ IRAKURTZEN DOT.




ZALAO (GALDAKAO)

BATZUTAN BAI. EGUNAREN ARABERA. BAINA EZ DOT SINISTEN. NORMALEAN GAUEAN IRAKURTZEN DOT ETA ORDUAN IKUSTEN DOT ASMATU DABEN ALA EZ. ETA GEHIENETAN, EZ.



JULEN (SANTUTXU)

INOIZ ERE EZ. ZERGATIA EZ DAKIT BAINA EZ DUT INOIZ IRAKURTZEN.




XABIER (TXURDINAGA)

KASURIK EZ DUT EGITEN BAINA NOIZEAN BEHIN IRAKURTZEN DUT. NORMALEAN, AURREKO EGUNETAKO HOROSKOPOAK, EGUN BERTAKOAK EZ, EH?



ITZIAR (BEGOÑA)

NORMALEAN BAI. BATEZ ERE JAKIN-MINA DA. SINETSI, SINETSI, BATZUTAN BAI. ZUK HOROSKOPOA IRAKURTZEN DUZU ETA GERO HOR ESATEN DIZUNA EGITEN DUZU...



RAUL (SANTUTXU)

BATZUTAN BAI. IRAKURTZEN DITUT ZER DIOTEN IKUSTEKO BAKARRIK. BAINA EZ DUT HORRETAN SINISTEN.

A
K
K
A
R
K
A
K
A

Mahatserrian azkenokaz izan direnak


Greba nagusi Mahatserrian ekainaren 19an

Sektore gehien-gehienak geldirik egon ziren egun osoan zehar

Mahatsorriak grebara atera ziren ekainaren 19an. Euskal Herriko herrialde gehienetan legez, gure auzoetan ere ELA eta LAB sindikatuen deialdiak oihartzun zabala erdietsi zuten, eguneroko bizimodua erabat geldirik

utzi arte. Enpresek, dendeak, eraikuntzek, ikastolek, ... lanik egin barik iraun zuten PPren gobernuaren politika soziala arbuia-tzeko eta Euskal Herrirako lan markoa eskatzeko.

SANTUTXU-BOLUETA. Goizeko hamaika eta erdiak. Komertzioak -salbuespen gutxi batzuk izan ezik- ez ditu atek ireki. Banku batzuek bai, baina langile gutxiagorekin. Obrak geldirik daude. Hezkuntza sektoreak ere ez du lanik egiten. TAOko beharginek grebarekin bat



Santutxu

egiten dute. Santa Ana industrialdea itxita. 'Deia' egunkariko langileek bezperan egin zuten lan uztea. Santutxun piketeak goizeko zortzietan hasi ziren auzoan zehar bueltaka. Hamarretan manifestazioa egin zen eta gero grebalari asko Bilbo erdira jaitzi zen, ELA eta LABek deitutako manifestazioetan parte hartzera.

TXURDINAGA. Eguerdia. Auzo honetan taberna eta denda gutxi daude. Txomin Garat kalekoak zabalik daude ia denak. Beste alde batzuetan, osterara, grebaren eragina igartzen da. Batzokia, esate baterako, ordu horretan itxita zegoen. Inguruetako ikastola batzuetan langileek greba egin zuten.

URIBARRI-MATIKO. Eguerdiko hamabiak eta laurden. Eraikuntza lanak geldituta daude. Denda gehienak itxita. TAOko langilerik ez. Piketeak ibili dira auzoan.


BEGOÑA. Eguerdiko ordubatak. Zumalakarregi etorbideko denda gehienak zabalik. Taberna batzuk eta Sabe-co supermerkatua, itxita.



Txurdinaga



Uribarri



Begoña

Pa...Ya Armoniarekin? Ezina ekinez egina

Otxarkoagako Konpartsakoak Iruñeko Armonia Txantreana peñakoekin egunpasa egin zuten

Gezurra dirudien arren, posiblea da. Zelan? Miraririk ez da izan, ordea, urte bateko kontua baizik. Iragan urteko Aste Nagusira Iruñeko Peñetako ordezkariak hurbildu ziren Bilboko jaiak zelan antolatzen diren ikusteko eta ideia berriak jasotzeko. Orduko hartan, hainbat harreman lotuz joan ziren baita adiskidetzeez edota senidetzeak adostu ere. Gaztelerazko esaldi horrek -"Dios los/as cría y ellas/os..."- egina osoa izan behar du. Izan ere, oso antzeko ezaugarriak dituzten Iruñeko eta Bilboko auzoetako konpartsak elkartu baitira oraingo honetan, senidetzea ospatzeko. Eta behin bakarrik ez dute, ez, ospatuko. Aitzakia ederra bilatu dute honez gero Aste Nagusian ez ezik Sanferminetan ere elkartzeko.

9:30etan Otxarkoagako plazan geratuta geunden autobusa hartzeko, gero Santurtzirantz trenez abiatzeko. Euskal Herriko puntualitatea ez da Ingalaterrakoa, baina denak bai puntualak hogeita minutu beranduago. Gosalduta, 03 autobusa hartu, Abandoko geltokian trenera igo eta Santurtzin geunden mundialeko partidua amaitu baino lehen. Penaltiak ozenki iragarri eta... Gora Korea!! Txakolina eta bolanderak gora, Denok korearrak gara eta !!

Baina zer demontre egiten du Peña Pa...Yak Santurtziko kaian? Eurek esaten duten lez, Pa...Yak baditu alternatibak, eta eguna ospatzeko (eta ez Espainia mundialek kanporatua izan zelako bakarrik) "Burdinazko Itsasadarretik" ibilbidea egitea baino hoberik ez dago. Korrika eta presaka iritsi zen Iñaki Uriarte arkitektoa eta BERTONeko kolaboratzailea. Bere eskutik hamaika azalpen entzunaz, Santurtzitik Bilbora "Euskal Herria" izeneko itsasontziz abiatu ginen, hori bai, Euskal Herriko puntualitateari tinko eutsiaz, Txantreakoak ordu erdi beranduago agertu ostean. Bidetik, Bizkaiaren garapen industrialari buruzko historiak eta istorioak entzun genituen, hamaiketako eta txakolina tarteko ere. Txinbitoko bidaiariei agurtu eta handik gutxira, Bilboko Udaletxera iritsi ginen. Ibaia Otxarkoagaraino heltzen ez delako, bestela....

Eta Otxarkoagan jaiak, beraz, iritsi bezain pronto eta bazkaldu aurretik derrigorrezko poteoa auzoan zehar, trikitiaz (lesionatua izan arren) eta panderoaz alaitua. Segidan Arbolantxako garagardotegian bapo bazkaldu eta ondoren, demak: mus, txingak, sokatira eta esku pilotan jokatu genuen. Aurreko hiruretan nafarrek egurra jaso zuten, baina pilotan nafarren aurka ez dago zereginik, jaun eta jabe direla erakutsi ziguten. Aupa Kanito eta Txispas!!

SENIDETZEA



Ekitaldi xumea egin zuten iruindarren eta mahatsorrien arteko senidetzea erabat osatzeko. Peña Armonia Txantrean egin "berri" dituen erraldoen irudi txiki bana opari Peña Pa...Yarentzat... eta gero, benetakoekin kalejira!! Aldapan gora, eskailera jaitzi, Kontuz piboteekin! Oztoporik ez Armoniakoentzat. Baina lan neketsua da erraldoiak dantzan ibiltzea, eta galdutako indarrak berreskuratzeko sekulako afaria egin zuten Pa...Yakoen txokoan. Bost sardexketakoa, aizue. Postrea, kanta batzuk, eta Armoniako batzuek etxerako bidea hartu zuten, igandeko konpromisoei hutsik egin ezinik-edo. Baina parranda zalerik ere bazegoen euren artean, eta jaiak aprobetxatuz beste pote batzuk eta berbenan dantza ere egin zuten. Horrela nekatu arte, baina hori zein ordutan gertatu zen ezin dut ziurtatu, hau idatzi duena nahiko "goiz" erretiratu zelako. Dena dela, egun polita, aberasgarria eta jende atseginarean artean igaro nuen. Pa...Yan Armonia egon daitekeela baieztatu ahal da. PD: Afirko argazkirik ezin da erakutsi, badaezpada.

Panera etxeetako baten aurrealdeko zati bat behera jausi zen

Trafikoa etenda egon zen adreilu gehiago behera etorriko ote ziren beldurrez

Ekainaren 13an Panera etxeetako baten aurrealdeko zati bat behera jausi zen. Hondakinok ez zuten inor harrapatu baina, arriskua ikusita, Udaltzaingoak trafikoa eten eta inguru hori hesiz itxi zuen etxearen egoera zein zen jakin arte.

Etxebarria parkeko hurbilen dagoen etxe aurrealdea jausi zen. Fatxadako goialdeko hiru bat metro karratu adreilu behera etorri zen. Zorionez, ez zen inor inguruan eta, ondorioz, ez zuen kalte pertsonalik eragin.

Berehala Udaltzaingoa iritsi zen bertara eta etxearen egoera zein zen zehaztu bitartean hesi batez inguratu zuen etxea. Ondorioz, bertako plazako zati bat eta ondoko errepidea -Maurice Raveletik Zumalakarregira jaisten den besoa- itxita laga zuten.

Trafikoa etenda mantendu zen Bilboko Udalak arriskurik ez zegoela baieztatu zuen arte. Hala ere, udal arduradunek inguruetatik kontuz gidatzeko eskatu zien auto gidariei.

Auzoko batzuen ustetan, aurrealdeko zati hori jausi izanaren arrazoia etxeen eraikuntza siste-



man datza. Izan ere, hantxe bertan lekuko batek esan zuenez, "aurrealde dotorea egiteko larregi zamatu zituzten zutoinak eta, azkenean, ezin diete adreilu guztiei eutsi".

SEISCIENTOSEN LAGUNEN TOPAKETA BILBON

Ekainaren 8an eta 9an Arriagaren alboko plazan bildu ziren hainbat lekutatik etorritako 600ak, Bizkaiko Elkar-teak antolatutako VIII. Bilkuran. Beste aldetik, datorren uztailaren 7an Lekeitorako irteera egingo dute. Betiko lez, Begoñako basilikan, goizeko 9etan geratuko dira, eta bazkaria Ispazterren egingo dute. Beren e-maila ere jakinarazten dizuegu: ava600@euskalnet.net



EUSKARAZ ONDO PASA

Asapala kultur elkartearen eskutik, ekainaren hasieran Kike Amunarriz soziologo gipuzkoarra eta Asisko Urmeneta marrazkilaria nafarra gurean egon ziren 'Euskaraz dibertitzeko manerak' hitzaldia emateko. Gela bete jende eduki zuten entzule Arbideako AEKko euskaltegian eta, egia esanda, gela barrez bete zuten.



Diskoteka bat zabaltzearen aurka protestak hasi dira Cocherito de Bilbao kalean

Seihun bat lagun hartzeko moduko dantzalekua ireki gura dute komisaria zaharrea

Santutxun Policía Nacionalak eduki zuen polizia-etxeke lokaletan diskoteka handi bat jarri nahi dute. Enpresa batek baimenak eskatu ditu bertan seihunen bat lagun hartzeko moduko dantzalekua egokitzeko. Jakin eta berehala protestak biztu dira.

Oraintsu jakin bada ere, urte honetako urtarrilean sartu zen Bilboko Udaleko erregistroan Cocherito de Bilbao kaleko 15-17ko sotoan diskoteka bat atontzeko lizentzia eskaria. Lokal horiek 1980 hamarkadan eta 1990 hamarkadaren hasieran Policía Nacionalaren polizia-etxearena egin zuten. Oraingo eskakizuna 'Yaks SL' izeneko enpresak egin du. Getxoko Paseo del Puerto kalean dauka bere egoitza nagusia eta Gaspar Gonzalez Perez agertzen da ordezkarri gisa.

Lokal horiek 521 metro karratu zabal dira eta, egokitze obrak egin ostean, 484 metro karratu geldituko dira erabilgarri. Horren ondorioz, dantzaleku berria 579 lagunentzako tokia egongo dela kalkulatu dute. 'Yaks SL'k eskatu duen diskoteka lizentzia '3B' taldekoa da. Lortuz gero, baliteke dantzaleku hori egun osoz zabalik egotea, goizez kafetegi gisa eta gauetz dantzaleku.

Orain arte inguruetako auzoen erantzuna euren etxeak kartekez jantzea izan da. Horrela, inguruetako etxeetako leiho gehienetan 'Discoteca no' dioten kartelak ezarri dituzte. Gainera, bertako komunitateek alegazioak aurkeztu dituzte Udaletxean eskatutako lizentzia horiek eman ez ditzaten. Alegazioak prestatzeko abokatuen laguntza hartu dute.

BATASUNAK LIBURUTEGIA NAHI DU

Batasuna da, orain artean, gai honen inguruan jendaurrean agertu den indar politiko bakarra. "Guk duela hamabi urte eskatzen genuena berresten dugu orain. Lokal horiek

Auzoek kartelak jarri dituzte non-nahi diskotekarik zabaldu ez dezaten exijitzeko. Batasunak, bere aldetik, aspaldian egin izan duen bezala, diskotekarako barik kulturgingintzarako lokalak izan daitezela proposatu du.




auzoarentzat izan beharko liriteke, Santutxun kulturgingintzak lokal premia daukalako", dio Juanjo Salazar Batasunako ordezkaririk.

Udal barrutiko kide honek nabarmentzen duenez, "dantzaleku hori egun osoz egon liteke zabalik, horrek aldean dakarren guztiarekin". Inguruko bizilagunei kalterik eragin beharrean Santutxuko auzoarentzat onuragarriak izan daitezkeen, Batasunak lokal horiek liburutegi gisa atontzea proposatu du.

Auzoek bezala, Batasunak kartelak jarri ditu inguruetan diskotekaren asmoa salatuz eta biblioteka eske. Bertako bizilagunek gainera sinadurak batzen hasi dira.

'EUSKARA MENDIAN' LIBURUARI HARRERA

BEROA. Santutxuko Mintza Praktika AEKk idatzi eta AEKren zein BERTONen eskutik argitaratutako 'Euskara Mendian' liburuak harrera beroa eduki du. Honez gero, BERTON diruz sostengatzen duten guztiok etxean hartu dute dohain. Eta asko izan dira Arbidea kaleko euskaltegiko lokalean BERTONeko kupoiarekin agertu direnak 5 eurotan eros-teko. Gogoan izan zenbaki honetan ere kupo hori edukiko duzula merkeago eros-teko eta horrela mendi ibilaldi pilo baten gida polit hori lortzeko.



SEI HILABETE BARRU KARMELOK EZINGO DU IKASTOLA BERRIA SANTUTXUN ERAIKI

Hermanitas de los Pobresen ondoko orubean urtarrilean hasi behar dira eraikuntza lanak



Karmelo ikastolako zuzendaritzak eta gurasoek Santutxun ikastola berri bat egiteko darabilten negoziazio, harreman eta mobilizazioek ez dute etenik izan ekainean zehar. Ekainaren 6an Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Ordezkaritzaren aurrean azaldu ziren eta ekainaren 26an Bilboko Udaletxearen aurrean. Gainera, alderdi eta arduradun politikoekin batzartu izan dira egunokaz. Hala ere, Bilboko Udalak ezetzean segitzen du eta ikastola berria Hermanitas de los Pobresen ondoko orubean egiteko aukerak agortzen ari dira. Urtarrilean, eremu horretan etxeak eraikitzen hasiko dira.

Testua: H.O.

Argazkia: Iñigo Azkona

Epeak gero eta murriztagoak dira. Denbora aurrera joan ahala, are zailago bihurtzen ari da Santutxuk ikastola berria lortzea. Gauza jakina da Karmelo ikastolak lokal berria oraingoaren ondoan nahi duela, Hermanitas de los Pobresen alboko orubean. Hilabeteak dira induskailuak bertan lanean dabiltzala. Beharreko lur mugimenduak egin ostean Udalak onartutako proiektua eraikitzen hasiko dira. Eta proiektu horretan ez dago ikastolarik.

Gauzak ondo, eraikitze lanak sei hilabete barru hasiko dira. Tartean uda dagoela kontuan hartuta, Karmelo ikastolakoek oso denbora gutxian lortu behar dute euren helburua. Bestela, ikastola berria ez da, seguruenik, Santutxun egongo, auzo horretan

ez baitago horretarako beste toki egokirik.

Erlojupean dabiltzala jakinda, Karmelo ikastolakoek ez dute euren jarduna eten. Ekainean zehar negoziazioak, kontaktuak eta mobilizazioak nahastu dituzte, fruiturik lortuko bada bide bi horiek uztartuaz izango zela pentsatzen dutelako.

EUSKO JAURLARITZA

Ikastola berriaren proiektua oztopatzen duten instituzioetatik bat Eusko Jaurlaritza da. Hezkuntza sailak ez du pausorik egin, orain artean, Karmelo Hermanitas de los Pobresera alda dadin. Ekainaren 6an ehunen bat ikasle, irakasle eta langile Eusko Jaurlaritzaren Bizkaiko Ordezkaritzaren aurrean azaldu ziren euren protesta hantxe bertan entzun zezaten.

Eta entzun, entzun zuten. Izan ere, une hartan bertan baitzegoen Hezkuntza sailburu Maria Anjeles Iztueta. Kazetarien galderei erantzunez, sailburuak ikastolarako irtenbide egoki bat lortuko zutela agindu zuen.

Karmelo ikastolakoak, pankartak hartuta, Gran Vía-ren erdian paratu ziren, baita bertan jesarri ere. Trafikoa ordu erdiz eten ostean, altxatu eta Santutxu aldera itzuli ziren.

BILBOKO UDALA

Bilboko Udalak ere badauka eduki zerikusirik arazo honetan. Izan ere, Iñaki Azkunaren gobernu taldeak ez dio babesik eman gura izan ikastola berriaren proiektuari eta, ondorioz, bide hori zerratuta dauka oraingoz Karmelok. Ikastolako arduradunak eta gurasoak udal taldeetako zinegotziekin harremanetan jarri dira oraingo ezetza baietz bihurtzeko.

Bide horretan, ekainaren 26an Bilboko Udaletxearen aurrean elkartu ziren hainbat lagun Karmelo ikastola berria Santutxun egin dezaten eskatzeko. Barruan Udalaren bilkura osoa egiten ari ziren.



IKASTURTEA AMAITU DA

Ekainaren 21ean ume mahatsorri gehien-gehienentzat ikasturtea amaitu zen. Eskola askotan jai giroan ospatu zuten bederatzita hilabete ikaste jardunaren akabua. Argazkian Santutxuko Luis Briñas eskolan egindakoa dugu. Play-back lehiaketa, jokoak, gaztelu puzgarriak, motor txikiak,... festa bikain batez amaitu zuten ikasturtea ume santutxuarrok eta euren irakasleek.



ZUBEROTARREKIN BAT
Helburua: 1.000.000 €

AUZOLANEAN

deitu orain: 902 33 88 66
05 59 46 13 89

Xiberoa
garatzen! egitasmoa

www.hezkuntza.com
UDAL BILTZA

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA
bertan

Justiegune, Euskalgune
Aitiber Iurtia
Iduna Taldia

Urtzi Urrutikoetxea
"Magtzen ezkerretara jartzen dituz kollektiboak"

Urtzi Urrutikoetxea

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA
bertan

Miren Agur Meabe
"Euskal literaturan aniztasuna eta maila altua dago"

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA
bertan

Eladio Mortiel, Otxarkoagako abesbatzaren zuzendaria

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA
bertan

Mikel Alvarez, mahatsorri bat Eteresteko tohorrean

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA
bertan

Imanol Agirre: "Batu nolabait zapela janzioa esperantzari"

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA
bertan

Urtzi Urrutikoetxea
"Ezkerretara jartzen dituz kollektiboak"

bertan

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

hartu bertan etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Bertan aldizkaria. Iturriaga 55, ezkerrean, 48004 Bilbo

Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbakia

Izena:

Abizenak:

Kalea:

Herria:

Telefonoa:

Bankua:

Kontu zenb.

DOHAIN

Sinadura

AUMATEGI (1.191 m.) ETA MUGARRILUZE (1.109 m.) (ELGEA)

Bilbotik Legutianora eta handik Bergaratik Gasteizera datorren errepidea hartuko dugu. Errepide horretara heltzean, Gasteizerantz jo behar dugu pixka bat. Lanter, Uribarri-Ganboa urtegiaren ondoan jatetxe bat ikusiko dugu ezker aldean. Jatetxe honen ondotik abiatzen den errepidetik jarraitu behar dugu Ozaeta herrira heldu arte. Handik ezkerretara Elgearaino.


Eliza ondotik jarraitzen du errepideak eta metro gutxira baserri eta korta batzuk daude. Hantxe utzi genuen autoa (A).

Bertan hasten da gure bidea, eta aldapa gogorrean jarraitzen du haritz eta pago artean. Bide hasieran basetxe (etxe forestala) izandakoaren aztarnak (B) ikus daitezke eta horrantz jo behar dugu (20').

Handik aurrera basabideak leun jarraitzen du zati batean eta bidegurutze (C) bat aurkituko dugu. Eskuinaldeko bidea hartuko dugu eta aldapa gogorrean hesi ondotik igoko gara Bost Haritz (D) deituriko tokiraino. Han bertan beste basabidea topatuko dugu. Basabide hori zeharkatuz, zuzen joango gara sastrakaz betetiko bide zidorretatik malda bukatu arte (40').

Landatik jarraituz bide bat aurkituko dutu (E). Ezkerretarantz Mugarriluze (1.109 m) daukagu (8') eta esandako tokitik eskuinetarantz Aumategi (1.191 m) dago (30'). Mugarriluze tontarraren ondoan publiometro bat dago, baita izen bereko zutarri handi bat ere.

Aumategirantz abiatuz Orbe izeneko putzura (F) jaitsiko gara.



JAKINGARRIAK

Elgea herritik Mugarriluzera ordubete eta zortzi minutu.

Elgea herritik Aumategira ordubete eta erdi.

EROTISMOAK KARTZELAKO HARRESIAK GAINDITUZ

Olatz Caminos Santutxuko presoak Basauriko ipuin erotikoen lehen saria irabazi du

Urtero lez, Basauriko Euskarabila elkarteak aurten ere ipuin erotikoen lehiaketa ospatu du. Hogeita hiru lan aurkeztu diren honetan, mahatsorri bat izan da irabazlea, Olatz Caminos. Olatzek urte eta erdi darama estatu espainiarreko kartzeletan barrena, eta argi erakutsi digu, beste behin ere, kartzelako une gogorak gainditzeaz gain, ipuin erotikoen lehiaketan parte hartzeko nahikoa indarrekin aurkitzen dela. Uneotan, Avilako espetxean dago mahatsorri gaztea epaiketaren zain, eta Soto del Realeko espetxean zegoela Euskarabilak antolatutako lehiaketan parte hartzea erabaki eta lehen saria irabazi egin du.

Testua: Arrate Diaz
Argazkiak: Berton / El Social



"Saudade" (bakardadea portugaleraz) izeneko ipuinarekin benetan harrিতuta utzi ditu Pako Aristi, Unai Elorriaga eta Miren Agur Meabe, lehiaketako epaimahakideak. Hauen esanetan, berea da Euskarabilaren lehiaketara aurkeztu den lanik onena.

Ekainaren 4an, aurtengo deialdiaren sari banaketa Ibaigane Kultur etxean ospatu zen. Bertara Olatzen ama hurbildu zen eta "Saudade" lanaren nondik norakoak azaldu zituen. "Saudade", portugaleraz

"bakardadea" izenburua duen lanak, Soto del Real espetxean, vis a vis batean emakume baten bizipenak kontatzen dizkigun ipuina da.

Ipuin honek gutun formalaren formatua du eta emakume batek bere mutil-lagunari zuzentzen dion eskutitza da, hain zuten. Bertan, emakumeari visak sortarazten dion inpresioa kontatzen digu Olatzek. Gela hotzaren deskribapen fisikoaz gain, emakumea visa eta gero ziegara itzultzen deneko oroitzapen gutuna idazten dio bere lagunari. Lau

"Aurtengo Euskarabilaren lehiaketa honetara hogeita hiru lan aurkeztu dituzte eta autore gehienak bizkaitarrak izan dira"


"Olatzek betidanik izan du prosan idazteko ohitura"

orriko lan honetan emakumearen bakardadea eta sentimenduak helarazten dizkigu autoreak, hau guztia eskutitz formatuan.

PROSAN IDAZTEKO DOAIK
Olatzek betidanik izan du prosan idazteko ohitura, eta oraingoan lortutako sari honek argiago uzten dizkigu mahatsorri gazte honen doaiak. Institutuan zegoela idazten hasi eta Gasteizen filologia klasikoko ikasketak lagungarri izan zituen letra munduan aritzeko. Caminosek lehiaketaren lehen saria irabazi izanaren berri izandakoan, poz handia hartu zuen eta espero dezagun prosan aditua den emakume mahatsorri hori datozen lehiaketetan bere idazkera doaiak erakusteko animatzea.

Bigarren saria Jon Kerejeta Arrigorriagako mutilak irabazi du, "Ispiluak" izeneko lanarekin. Egun, Gasteizen bizi eta Administrazio publikoan diharduen gaztearen esanetan, "edozein emakume bakarrik dagoenean senti dezakeena islatzen saiatu naiz". Kerejetak irabazten duen lehen saria da, eta aurkeztu den lehen aldia ere bada. Jonek dioenez, "betidanik idatzi dut, baina gehien bat lagunei erakusteko eta praktikatzeko izan da".

Hirugarren saria Alvaro Ravellirentzat izan da. Honez gero, Ravelli ezaguna da Basauriko lehiaketa horretan, berak irabazi baitzuen lehen edizioko sarietako bat, oraingoan bezala, "herriko egilerik onena"ren saria. Alvaroren kontakizunaren tituluak dioenez, "Euskara teknikaria, aurretik zein atzetik" euskara teknikari baten abenturak



Alvaro Ravalli eta Jon Kerejeta, beste bi sarituak.

"Ipuin honek gutun formalaren formatua du eta emakume batek bere mutil-lagunari zuzentzen dion eskutitza da, hain zuten"

kontakten dizkigu. Hain zuzen, taberna batera euskara plana martxan jartzeko bidali dutelakotan, putetxe batean amaitzen du. Lanak, umorea, ironia, eta Alvarok gustuko dituen egoera beltzak sorrarazteko aukera ezin hobe eskaini zion autoreari.

LEHIAKIDE GAZTEAK
Aurtengo Euskarabilaren lehiaketa honetara hogeita hiru lan aurkeztu dituzte eta autore gehienak bizkaitarrak izan dira. Emakumeen partehartzea ere aurreko urteetan baino ugariagoa izan den honetan, lehiakideen erdiak baino gehiago 30 urtetik beherakoak izan dira.

Gelaya INMOBILIARIA
HIGIEZINEN KUDEAKETA - EROSKETA-SALMENTA - ALOGERAK - ...
Iturriaga, 92
Tfona. 94 473 07 78
48004 SANTUTXU - Bilbo

ADI ASESORIA
FISCAL - CONTABLE - LABORAL - JURIDICO - MERCANTIL
Oleta, s/n - 48970 BASAURI
Tel. 94 426 08 08
Txomin Garat, 4 - 48004 BILBAO
Tel. 94 411 08 55
adiasesor@adi.euskalnet.net
Zergak-lan harremanak kontabilitatea juridikoa merkatalgintza

PRESOAK KALERA AMNISTIA OSOA!
SAAK

horoskopoa

Aries: martxoaren 21etik apirilaren 20ra.
Mundialetako betekadaren ostean hilabetez sikieran egongo zara futbola aitatu barik, ezta?

Taurus: apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.
Oporrak ez dozuz urrun emongo, ez. Artxandako txakolindegi bateko gerizpan-edo...

Gemini: maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.
Lagunak moskeatuta dekozuz. Zeure urtebetetzea zeozer pagau barik pasa zendun ala?

Cancer: ekainaren 21etik uztailaren 20ra.
Orduka bada be, lanpostu bat atarako jatzu. Irakasle antzekoa...

Leo: uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.
Bikinizaletasunik zoratu behar zaitu ala? Har egizu lasaiago, laguntxu.

Virgo: abuztuaren 24tik irailaren 23ra.
San Joan gauan dantza eta dantza ibili zinan suaren inguruan. Oraindiño erretura usaina darizu.

Libra: irailaren 24tik urriaren 23ra.
Udako eguzkia, hondartza, ur freskoa, lagunartea, diru apur bat gastatzeko, ligeak, ... ez ete dozu larregi eskatzen?

Scorpius: urriaren 24tik azaroaren 23ra.
Udako beroak pila barik ixten zaitu. Hoba dozu Finlandia aldera osteratxo bat egitea...

Sagittarius: azaroaren 24tik abenduaren 23ra.
Zergaitik ez dozu ordenagailu zantar hori behingoz amatatzen? Udara etorri jaku, lagun!

Capricornius: abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.
Sanferminetarako ekipoa prest dekozu. Halan da be, zeozer falta jatzu... ala ez dozu dirurik beharko?

Aquarius: urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.
Zeozer egin baino arinago, pentsa egizu ganoraz. Zer egin behar dozu orain erosi dozun emu kuma horregaz?

Piscis: otsailaren 19tik martxoaren 20ra.
Zorionak! Sekulan baino sendoago zagoz, zuk ez daki-zun arren. Eskerrak geu gagozan zeuri esateko.

agenda

UZTAILAK 5

BERTSO TRENA, ABIADURA HAN-
DIKO TRENAREN AURKA. XABIER
AMURIZA, JON LOPATEGI, ANGEL
MARI PEAGARIKANO,
JON ENBEITA,...
KAFE ANTZOKIA. DOHAIN.
ARRATSALDEKO 8,30ETAN.

UZTAILAK 7

600EN LAGUNEN IRTEERA
LEKEITIORA. GOIZEKO 9ETAN
BEGOAKO BASILIKAN.

UZTAILAK 8-10

BILBOKO KALEALDIA. KALE
ANTZERKIAREN JAIALDIA.

UZTAILAK 10

BUDDY MILES. TONKY BLUES
BAND. BLUES KONTZERTUA.
KAFE ANTZOKIA.
GAUEKO 10ETAN.

UZTAILAK 11-14

BILBAO TROPICAL JAIALDIA.
KONTZERTUAK EGUNERO
SAN FRANCISCO AUZOAN.

UZTAILAK 13-14

RAFTING, ESKALADA ETA KAYAK
RIGLOS HERRIAN (HUESCA).
LEHENENGO SEIHILABETEKO
DIPLOMAK BANATUKO DIRA.
EGUZKI LOREA MENDI TALDEA.

UZTAILAK 13-14

LEKEITIOKO KALE
ANTZERKI JAIALDIA.

UZTAILAK 13-21

SANTUTXUKO JAIK.

UZTAILAK 14

MUSIKA KLASIKOA.
LORIN MAAZEL. ORQUESTA DEL
MAGGIO MUSICALE FIORENTINO.
ARRIAGA ANTZOKIA.
ARRATSALDEKO 8ETAN.

